

Barañain'en euskal urratsak

Orain dela gutti, euskal kulturaren laguntzaile aundi batekin topo egin nuen Nafarroa'n. Alberto Ardanaz dugu, Barañain'go Udaletxean lan aundiak egin ditunak, 1986-1992 urteen tarte ortan. Gregorio Clavero alkatea zelarik, euskeraren alde talde bat sortu zuen Udaletxean eta ekin-tza orren buru Alberto Ardanaz jarri. Gure euskalzale zinezko onek sei urtez, etengabe lana egin du.

Ekintza berexi batzuei garrantzi aundia ematen die. 1989'garren urtean, aurreneko aldiz, erriko jaien programa euskaraz agertzea lortu zuen. Eskuetan zutela, ori ikusita, ikaragarritzko biotzkada artu zuten askok. Orrekin giro bat sortzea lortu da. Geroztik bi izkuntzetan daukate erriko jaien programa. Gaur askoz aurrerago dabilta: Udalako erabakiak bi izkuntzetan daukate.

1989'garren urtean, erriko jaien asieran, suziria botatzeko aukera izan zuan, erriko enparantza nagusia, gizasemez lertzen zegoelarik. Orduntxe ba erran zuen, lenengo aldiz euskaraz, oiuka: «Gora Barañain» - «Gora Euskalerria». Denak, ori bera errepikatu zuten; euskara zen ageri arnasaldi eder batean.

Gernika'ko aritzaren kimu berria, Barañain'en aldatzeko, bere lanak artu zituen. Aurreneko urratsetik azkenera, gaithean egon bear. Al-datu zutenean, aintziraren ondoan, Ardanaz'en alabak, Itxaropena izena duen neska gazteak, orri bat euskaraz irakurri zuen.

Sei urteko lana Euskara delako taldean, arrigarria da: zazpi milloi lortu gure izkuntza zuzpertzeko, ikastaroak langilleentzat, dirulaguntza ikasleentzat (eundik ogeitabortz), Nafarroa Oñez, txapelketak sortu,



Barañain erri zarra.

Euskaltegiei eutsi, baita dirua Euskal Irratiarentzat eta Egunkaria izparringientzat eta abar eta abar.

Errikoetxeko Euskara delako taldean amar lagun ziren eta lana den eginkizuna zen, baiñan Udalako agintarien maian, arduradunak bakarrik zeukaten alkia. Indarra zuten aurrean Alberto Ardanaz'ek itz egin bear. Orrelako erabakiak, geienak ontzaz ematea, arritzekoa da. Orre-kek adierazten digu zenbaterano di-joan aldatzen giroa Nafarroa'n, zo-rionez.

Nor dugu Alberto Ardanaz eus-kalzale jatorra? 1934'garren urtean jaio zen Iruña'n. Gurasoak arakiñak zituen eta lanbide ortan jarraitu zuen. Amabortz urte Paris'en egin ditu lanean (1960-1975). Gernika delako taldearen zuzendari bezala egin zen Euskaletxean.

Emaztea Agoiz'tarra dauka ta ba du alaba Eultza ikastetxean dabille-na, -D- ereduan, dena euskaraz

ikasten.

Noiztik datorkio euskalzaletasu-na? Amasei urte zitula, Pello Bera-saluze adiskideak, eskutik artuta Le-ge-zarren edergallua ikustera eraman zuen, ta euskarazko esaldia idatzita erakutsi zion, erranez: «Auxe da Nafarroa'ko izkuntza zarra». Ez zaio geiago aztu.

Gaztetxo zelarik Arturo Kanpion osoa irakurri zuen.

Gure euskalzale au idazlea dugu. Baditu berrogeitabortz idazlan izparringietan argitaratuak, erderaz, eus-kal kulturaren alde; Deia, Egin, Dia-rio de Noticias, Diario Vasco, Diario de Navarra eta abar aldizkarietan.

Larunbata atsaldean, Dona Maria elizara, euskal Mezara dijoa bere sendiarekin eta an alabak irakurtzen du ta aita «AGUR JESUSEN AMA» abesten.

Orrelako gizonak egiten dute Na-farro berria.

Latzaga

Ferriak

Urtea badoa eta usteketan Uda-berrian sartu gara, alaitasuna na-bari dela bihotzetan eta indar berri bat gorputzetan.

Aipa ditzagun Baztanen ospatzen diren ferriak urtearen barnean. Bi ferri haundi izaten dugu, bat «Primaberako ferriak» deitzen dute-na, hau Bazko ondoko ostiralean ospatzen dena eta aurten Apirila-ren 21-ean. Ohiturak eta Tradi-zioak irauten dute eta yendeak go-goan dauzka hoiak guziak eta segur naiz Baztango baserri guzie-tan badakitela aurten «Primabe-rako ferriak» hilabete hunen 21-ean direla. Bertze urtetan bezala aur-ten ere yendea bilduko da Elizon-don.

Erran dut bi ferri ospetsu izaten

ditugula urtean, bat aipatu dudana «Primaberako Ferriak» eta bertzea «Urriko Ferriak» fama haundikoa Euskalferri guzian. Ferri hauek «San Lukas» ondoko asteko ostiralean izaten dira eta ohiturari yarraikiz hutsik gabe egiten dena. Urriko ferri hok mugiarazten dute yendea eta egun hortan mundu bat biltzen da Elizondon. Merkatu zelaian beiak pillaka eta bai zaldi eta ardi. Makinaria mota guzietakoa, hor bada non hauta eta zer eros. Karri-ketan saltzaleak pillaka zer nai bit-xikeri saltzen dituztela.

Udaberriko ferri hoketan ere era-

kusten dute «azienda» bei talde ederra eta bai zaldi ta ardi, baina ez urriko ferietan bezala.

Udaberria eta Urria bi sasoin desberdiñak eta yanarietan ere sa-soñari dagokiona. «Primaberako ferietan» «umerrie» eta «gaztanba-ra» eta Urriko ferietan, usoa, mats beltza eta gaztañak.

Beti ere yakinen gainean egon zaitezten «Primaberako Ferriak» Apirilaren 21-ean ospatuko dira Elizondon.

Elizanburu ospetsuaren kantue-tan bertso batek holaxe dio:

*Primaderan hasi orduko
arbolak estaltzen lorez
Xoritxo bat heldu zaut beti
nere herriatik hegalez.*

M. Izeta

Berri ona

Pasio igandea

«Aita, barka iezaezu» (Lk. 22, 14-23-56)

PASIO aundiak eta barkamen gutxi. Esaldi one-kin labor-bildu genezake gure gizartearen egoera eta izaera.

Istillu aundiak eta nabarmenak ditugu gure artean. Gizakia triskantza batean bizi da. Eraiki orde, apurtu, maitatu orde, gorrotatu, lagundu orde, kalte egin, pakea egin orde, gerra sortu... au da egiten ari geran bidea.

Egoera onek zer eskatzen digu? Pakea, adiskidetzeta, gizakia eta izadia errespetatzea, erriak eta erriarren duintasuna...

Erri, emakume eta gizon anitz dira miña, sufrimena, oñazea, iraiña, lan gabezia, kultura eza, gosea, zapal-kuntza... eta abar luzearen jabe direnak.

«Tolerantzia»ren urtea dugu aurtengoa. Toleran-tzia, ordea, barkamena du lagun eta adiskide. Barka-menik gabe ez dago tolerantzia bizitzerik.

Gure Erria asarre bizi da. Kizkurtuta bizi da. Ditugun eskubideak ez dira ezagutuak eta errepetuak. Giza-kion bizitzak indarkeriaren segarekin erabat moztuta gelditzen dira. Agintearren eskulekua nai dute guztiek. Ez digu ajola nola baiña, geiegi penatu gabe besteen kontura aberastu nai dugu oso denpora gutxian.

Gorrottoa sartu da gure biotzetan. Ez dugu deus onartzen geure iritzia ez bada. Gorrottoa kentzeko,

ordea, bide bat besterik ez: barkatu. Barkatu lagunei eta lagun ez diranei. Eta arerioak ditugunei barkamena eskaintzea guztiz zailla egiten zaigu.

Bizi dugun gizarte istillutsuan garrantzi aundikoa da barkamena ematea eta barkamena artzen jakitea. Barkamenak gizarteko eta pertsonen arteko arremanak askoz gizakioagoak egiten ditu. Barkatzen duenak badaki maitatzen, eta barkamena artzen duenak badaki norbaitek maite duela.

Barkamenaren eta pakearen izen berri omen da «Tolerantzia». Eta gure errian biak bear: Barkamena eta pakea. Nola bertzela senide izaten asi? Nola bertzela gure erriaren onerako eta aurrerapenerako lan elkarre-kin egin?

Ez gure erriak, ez da munduko bertze erriek ere, salbamendua ez dakarren gurutzerik ez dute nai. Per-tsonek ere ez dute nai grazia eta salbazioa ematen ez duten gurutzerik.

Jesu-en gurutzeak iraiña eta gorrotoa sortu orde, barkamena eskaintzen du; eta oparo eskañi ere. Jesu-s-en itzik gozoenak eta unkgarrienak gurutzean erran-dakoak dira. Gurutzean zintzilik zegoela barkamen itzak erran zituen Jesus-ek.

Elkar-gorrottoaren orde jar dezagun maitasuna.

Artzalluz'tar Joxemari

Saski-Naski

(Inazio Larramendi, Bera'ko olerkaria)

Iritxi zaku «Saski-Naski»ren az-keneko numero edo zenbakia. 65'garrena. Euskerazaintza Akade-miko idazleek argitaratzen dute, Iparramerika'ko «Reader Digest»en antzera. Eta sinista eidazu ura be-zain ederra dela. Ta arras atseñia! Euskerazaintzako nere lagunak zer bait baldin ba'dire, bai orixe, primerako idazle bikañak bait dire. Azkeneko zenbaki ontan, bizkaie-raz (Zubikarai, Olazar, Zubiri), la-burdieraz (Etxepare), eta batez ere, napar-gipuzkeraz idatzitako lanak aurkituko dituzu. Ori bait da, eus-kaldunek erreen ulertzen duten euskalkia: Azkue jakintsuak bere «Euskera Osoturako» oiñarrizat artu zuena. «Saski-Naski»k azke-neko zenbaki ortan, ezaguna du-zuten Artzalluz'tar Joxemari'ren lan bat datorkigu, eta Paris'ko iru doktoradutzakin teologilari, antro-pologilari eta izkuntzalari den Lat-xaga'ren beste bat: Inazio Larra-mendi, erri olerkaria. Nafarroa'ko Bera erri pollitean jaiotako poeta orren bertso-lanen merezimen-duak aurkeztu. Benetan mutiko yayoa dugu eginkizun oietan Lat-xaga, berak billatu ta aurkitu bait zuen euskerazko lenen atzerkigi-llearen antzerkia.

Euskerazko lenen antzerkigille ori, Araba'ko Aramaiona'n jaiot ta Arrasate'n (Mondragon'en), letra-du izendako Barrutia dugu. XVIII garren mendeko gizona. Bere an-terki lanak, «Atto para la Noche Buena», deritza, eta naiz izenburua gaztelerez eraman, euskeraz, eta bertsoz, idatzia dago. Orrela, Eus-keraz idatzitako lenen antzerkia da. Lenen euskalantzerki ori, paper zar batzutan idatzia aurkitu zuen Lat-xaga'k. ¡Baña paper zar aietan ¡Ba-rrutia'k berak bere esku ber-beraz idatzia! Liburu eder, polit, lillura-garri batean eman digu Latxaga'k, alde guztietatik maixuki egin dion atzerketa bikañarekin batera, an-terki zar ori.

«Saski-Naski»ren azkeneko zen-baki ontan, Larramendi'ren bertso-lana aztertzen erabili du Latxa-ga'k bere yayotasuna. Ikusi ezazu zeñien gauza polita irten zaion: (Getari Kalea, 21, B. Donosti. Urrutizkiña 428456. Edo 835816: Manu Oñatibia idazkariarena). Mi-lla peza «mixeable» besterik ez zaizu kostako urte beteko arpidet-za (suskizioa). Milla peza «mi-xeable»! Orrela ari bait da Euske-ra-zaintza euskeraren alde lanean, naiz bera sos «mixeable» baten jabe izen ez.

Bere iru doktoradutzekin, Eus-

Saski-naski

65. Urtarrila-Epaila 1995. 200 poeta

Oñate	Zubikarai'tar Augustin	1
Ziortza'ko Kolegiata	Inazio Larramendi	2
Azkoiti'ko Jaunboak	Arasate'ko Joxemari	3
Urretaren'tar Andoni, "Umandi"	Arasate'ko Joxemari	4
Urdetza leinburu	Egoñe'tar Gerson	5
Euskaldunak Ameriketara: Benetxe'n	Olazar'tar Martin	6
Inazio Larramendi, erri olerkaria	Latzaga	7
Buruzkak	Jean Etxepare	8
Bankero batokin	Oñatibia'tar Yon	9
Bei ote dakizu?	Gorostegui'tar Mikel	10
Ballantze'ko Nagusia	Frank N. Magill	11
Elizeer Ben Yehuda	Egoñe'tar Gerson	12
Inguru-giroa	zaitzeko	13
amar	ekintza	14
errez	edo	15
Exkontza-bizitzan	kundetasun	16
keruludeak uts egiten duenak	Carol Bonilla	17
Glenn Ford	Menzidortar Mikel	18
Nagabe aundi bat galditua	William Thomas, Buckler	19
Tdngurria II	Oñatibia'tar Manu	20
Herpes, gaizaldi gogakaria	Mediku sarra	21
Aitita auzitegin	Zubikarai'tar Mikel	22

IRAKURRI TA ZABAL EZAGUTU

kerazaintzako pitxirik dotoreena dugu Latxaga, naiz, ain gizon, so-til, apal, maitagarria izen. Badugu beste gizon bikañik ere! Biziak ai-patzeke, oroi ditzadan ildako bat-zuk:

- Oñatibia'tar Jon, Paris'ko Sor-bona Unibersitateak IL ONDO-REAN DOKTORE EGIÑA. Ez «dokto-re honoris causa», ez; itza-ren zentzu batean baiñik dokto-re. Ez zan oraindik munduko unibersi-tate guztien edestian, ildako bat sekulan dokto-re egiña izen. Bera, aurrenekoa; bera, bakarra; kixako unibertateei dagokineez bintzat, oraindik bakarra. Euskaldun bat aurrenekoa! Eta bakarra! Ta eus-kaldun ori, Euskerazaintzako! An izen nintzen ni lagun bati eskerrak, Paris'en. Egun aundia, benetan, egun ura. Orduan artu bait zuen Latxaga'k ere bere irugarren dok-toradutza.

Aipa ditzadan, irazean, Onain-dia'tar Alberto Londres'ko irratitik, «James Marstertom», eta Paris'ko-tik «Padre Olaso» izengoitipean azkeneko gudatean ainbat gauze mintzatu zitzaiguna. Mundua-zear irratiz-izlariak entzunena izen zelako, Inlanderriko BBC'k oso-oso-oso bakanka eman oi duen urrezko dominiñaz saritua. Euskaldun bat, mundu guzian ain balio aundiko saria irabazi duen! Eta euskaldun ori Euskerazaintza-koa! Eta, Lekuon'tar Imanol, eus-kerazale guztien deituraz Don Ma-nuel, Euskaltzaindi Zar Bikain artako Lendakari izana, Euskal-A-gozko-Literatura ongien ezagutu ta aztertu duen gizona. Euske-ra-zaintzako!

Eta Akesolo'tar Lino, Euskal-Li-teratura-Idatzia beste inork beñio obeki, ezagutu, eta aztertu duena. Euskerazaintzako Lendakaria!

Latiegi'tar Bixente

Albiste laburrak

Segovia ondoan azaldu ziran ezur-rak Blanca I de Navarra erregeñaren ezurrak diran jakiteko, ezur-mamitik zati bat artu ta ADN aztertuaz lanean diardue, Nafarroa'ko Jaurilaritzaren aginduz.

Perez Lapazaran sailburua kezkatu agertzen da, Itoiz eta Nafarroa'ko Ubidearen aurkako ordezkariak, Ma-drid'go Ingurugiroko idazkaria dan Cristina Narbona'rekin, azken aldi ontan, sarritan izketatu dirala jakin-dakoan.

Lurrak ureztatuko ba'dira, aurrez, lur-zati txikiak alkartuta egon bear dute (concentración parcelaria); ureztatu bear diran 30.000 lenengo ektareeta-tik erdiak, aurren alkartuta egongo dira.

Urte onen asieran Iruña'k, legezko 181.776 bizilagun zituan; igaz baño 689 gutxiago. Jayotzak, eriotzak baño ugariago izan arren, 3.191 la-

gun berri etorri eta 4'599 joan egin ziran.

Bidasoa ibaiko aurtengoa lenengo bi izokiak, Doneztebe'ko Miguel Ibarro-la'k eta Castejon'en bizi dan Jose Manuel Asiain azpeitarrak arrantzatu dituzte; 4,5 kiloa lenengoak eta 6,1 kilokoa bigarrenak.

Nafarroa'ko XXIV Bertsolari txapel-keko txapela, Lesaka'n bizi dan Ez-titxu Arozena'rentzat izan da; txap-ildun-ordeko, bere aita Manolo Arozena. Zorionak aita-alabei!

12 ta 7, 16 ta 11 eta 18 ta 15 aurretik ibilli ondoren, Lasa etxarriaranazta-rrak, 22 ta 20 galdu zuan, Irazola'ren aurka jokaturako eskuz-eskuko pelo-ta txapelketako jokaldia. Gaur arrat-salde eta Labrit pelota-lekuan aurre-z-aurre, Beloki eta Eugi. A zer urduritasuna bien artean!

Berri-emalle